



**ITSASONDOKO
UDALA**

Etxebizitza hutsen erreargua

2012/4 Foru Arauaren arabera, udal honetan %50eko erreargua aplikatzen da etxebizitza erabilera duten eta subjeto pasiboaren edo hirugarrenen ohiko egoitza ez diren etxebizitzetan.

2017ko urtarrilaren 1etik aurrera, honako egoera hauek geratuko dira erreargu horren aplikaziotik kanpo:

OHZn hobariren bat dutenak:

Ostatu jarduerari atxikitakoak

Zahar etxe eta antzekoetan erroldatutako pertsonenak. Etxebizitza bat gehienez. Ofizialki onartutako mendekotasun egoera dela-eta etxebizitzan inor erroldaturik ez izatea, 39/2006 Mendekotasun legearen onuradunak izanik.

Bizigune programan atxikita egoteagatik hobaria dutenak. Bizigune programan egonda oraindik alokatu gabe daudenak

Oinordetzan hartu dutenak (bi urte)

Azken bi urteetan alokatuta egon den etxea eta berriz ere alokatzeko dagoenean nahiz eta urtarrilaren 1ean alokatu gabe egon.

Jarduera ekonomikoetara bideratutako etxebizitzak; kasu horretan, ezinbestekoa da JEZn altan egotea. Lanbide edo merkataritza jardueretan ari direnak.

Antolamenduz kanpo daudenak, erortzeko zorian daudela aitortuak (ruina), hirigintza kudeaketara lotuak. Babes bereziko mailan deklaraturako etxebizitzak.

Batuta dauden etxebizitzak, nahiz eta jabetza erregistroan bi finka izan eta bi ordainagiri eduki.

Ordainagiri bakarrean ageri diren etxebizitzak, erregistroan finka bakarra delako (jabetza bertikala)

Etxebizitza librea erosi denetik urtebeteko epean, jabe-hartze baimena ematen denetik edo eskritura egiten denetik kontaktzen hasita.